

E Elkarrizketa**ALAITZ BAÑALES** › Palista afizionatua

E.Z.

«Zalantzarik gabe, txapela eskuratzea izango da helburua»

Pilota» Kasualitatez izan zuen Alaitz Bañalesek Emakumea Pilotari proiektuaren berri, duela hiru urte; txapelketako maila asko igo dela dio.

ESTITXU ZABALA

Gaztetatik du gustuko Alaitz Bañales (Amara Berri, 1977) pala hartu eta frontoian jokatzea. Emakumea Pilotari sortu arte, ordea, ez zuen beste emakume batzuen aurka txapelketetan lehiatzeko aukerarik izan.

Nolatan hasi zinen palan jokatzen?

Gazteagoa nintzela askotan jokatu nuen frontoian lagunekin edo mutil lagunarekin. Nik neskekin jokatu nahi nuen, baina ez nekien non egon zitekeen horretarako aukera. Ezkontza batean lagun batek Emakumea Pilotari proiektuaren berri eman zidan eta, horren bidez, Maider Mendizabalekin jarri nintzen harremanetan. Berarekin hasi nintzen entrenatzen, hori bai, hasieran teniseko pilotarekin jokatzen genuen. Apirila eta iraila artean aritu ginen horrela eta federatzea proposatu ziguten, txapelketan jokatzen hasteko. Hala, hurrengo urtean formalago aritu ginen.

Orduan Emakumea Pilotari proiektua hasieratik hartu zenuen. Bai, baina kasualitatez. Ez nuen kaletik edo informazioa aurkitu. Gainera, esan dizudan bezala, pilotan jokatzeo nesken bila nenbilen. In-

ternet bidez ere saiatu nintzen; baina, noski, bilatzaileen *chicas pelota* jarrita, imajinatuko duzun bezala, denetarik azaltzen zen, palan jokatzeo neskek izan ezik. Egia esan, zaila zen horrelako zerbait topatzea, kirola egiten duten mutilak alde guztietan daude, baina neskek... Badirudi adin batetik aurrera desageritu egiten direla.

Nola antolatu izan zarete entrenatzeo?

Behin federatuta, Altzatarra klubean sartu ginen, une horretan ez baitzuen emakumezkoen atalik. Federazioak bideratu zuen guztia eta hasieran Maider Mendizabalekin entrenatzen genuen. Aurrerago, ordea, gure kontura moldatu izan gara. Entrenatzailearen beharra sumatu izan dugu, baina ez federazioak ezta klubak ere ez dute horretarako nahikoa dirurik. Hilabete batzuetan nire aitak ere entrenatu gintuen, gaztetan pilotan ibilitakoa baita. Baina azkenean utzi egin zuten, hotz asko pasatzen zuela zioen [barrez]. Orain gure kontura entrenatzen dugu, astean behin, klubeko gainontzeko kideekin banatu behar baitugu frontoia. **Beste frontoien batean entrenatzea zaila da?**

Sekulako arazoak izaten ditugu, oso prezio garestiak izaten baitituzte. Klub bateko kide izanda ere, ez duzu deskontu handiegirik izaten. Trinketeko ordu bakarra hartzea 28 euro dira. Beraz, jende gutxi animatzen da.

Txapelketa nola antolatzen dute? Konforme al zaude?

Nire ustez oso ongi antolatua dago guztia. Lehiaketa irekia da eta mailaren arabera antolatzen dituzte bikoteak. Ez duzu zertan zure klubeko jokalarri batekin osatu behar bikotea. Maila eta teknikaren arabera rankinga osatzen dute eta bikote parekatuak osatzen dituzte. Aurten bi mailatan banatu gaituzte. Goiko mailan onenak daude eta beheko mailan gainontzeko guztiak sartzen gara, bi multzotan banaturik. Talde bakoitzaren barnean ligaxkak egingo dira. Beraz, ez dugu denek denen artean jokatuko, asko luzatuko litzatekeelako. Hala ere, lehia interesgarria izango dela uste dut. Izan ere, hasi nintzenetik orain arte, guztiak hobetu dugu. Orain ez dira hain partida errazak izaten eta ez da ziur jakiten nor irabaziko duen. Aurten, Zumarragako batekin jokatuko dut.

Zure bikotearekin entrenatzeo aukera izaten duzu?

Ez. Beno, berarekin harremanetan jartzen banaiz geratu gintezke, baina, distantziak kontuan harturik, zaila da. Gainera, ez dugu jokatzeo frontoi zehatzik. Hala ere,

couching delakoa jarri digute, Luis Jimeno. Berak erakusten digu, teknikaz gain, estrategia eta helburua definitzen bikotearekin. Bakoitzaren onena ateratzen irakasten digu eta aurkariaren ahultasunak ezagutzen. Bakarkakoak izatek bikote bat osatzera eraman gaitu. Beraz, bikotearekin entrenatu gabe bada ere, zenbait kontu erabakitzen ditugu.

Orain arte nahiko ongi joan zaizu, ezta?

Txapelketan parte hartzen dudana hirugarren urtea da. Ezker paretetako lehia, lehen urtean, finalera iritsi ginen. Iaz, trinketean final aurrekoetan kanporatu gintuzten.

Aurten baduzu helbururik?

Zalantzarik gabe, txapela eskuratzea izango da helburua. Guztiak dugu helburu hori, baina, bestela, partidaz partida hobetzen zoazela ikusteare ere oso polita da.

Zer izaten da onena?

Gustuko duzun kirola egitea eta gustuko duten lagunekin partekatzea. Gainera, oso giro ona dugu eta non zeuden ere ez nekien herriak ezagutzeko balio izan dit.

Etorkizuna ikusten diozu proiektuari?

Noski. Gainera urte gutxi hauetan ikusi da geroz eta gehiago elkartu garea, eta koordinatzaileari lan mordera elkartzen zaio. Donostian agian zailagoa da, baina gainontzeko herrietan geroz eta heldu gehiago ari dira jokatzen.

Larri bada ere, finalerako txartela lortu du Egigurenek Felix bikotearekin

Zesta punta » Aietearrak bihar jokatuko du Munduko Txapelketako azken partida, Markinan, 22:30ean.

ERREDAKZIOA

Munduko Binakako Txapelketako finalera iristea lortu du Mikel Egiguren donostiarrak. Felix izan du bikote Aietekoak eta batere partidarik galdu gabe jokatuko dute finala, Foronda eta Lopezen aurka. Markinako Uni frontoian izango da norgehiagoka, bihar, 22:30ean (ETB-1).

Astearte gauean jokatu zuten Egiguren II.ak eta Felixek final aurreko partida. Ordukoan, justu lortu zuten garaipena, faborito izan arren, 35-32 garaitu baitzituzten Lander eta Alliez. Horra iristeko, beste hiru partida irabazi behar izan zituzten. Hiruetan alde handiarekin gailendu ziren.



Egiguren, eskuinean. IJA-ALIVE

Laburrak**Pegamoko Arbelaitz, eskal selekzioarekin**

ERRUGBIA » Pegamo Bera Berak ez du Espainiako Ohorezko Mailako partidarik jokatuko asteburu honetan. Izan ere, Olympus XV Europako neurketa dago eta Bera Bera Javier Arbelaitzek eskal selekzioarekin jokatuko du. Bestetik, Bera Bera Bk Durangon jokatuko du larunbatean, 11:30ean.

Denboraren kudeaketa eta aldaketa, aztergai

SASKIBALOA » Gipuzkoako Saskibaloi Federazioak hezkuntza hitzaldia eskainiko du, larunbatean, 9:30ean, Ibaetako Unibertsitateko Ignacio Barriola erakinean. Bertan, ACBn jokatzen duen Caja Laboral Baskoniarekin egindako azterketa azalduko du Jose Luis Larrea Ibermaticako presidentek. Denboraren kudeaketa eta aldaketaren kultura izango dira hitzaldiko ardatzak.